


Turespañak Donostian egingo du turismo jasangarriari buruzko III. Konbentzioa



III CONVENCION
TURESPAÑA —
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN



- Urriaren 23tik 25era bitartean, Turespaña Konbentzioaren III. edizioa izango da Kursaal Jauregian eta turismoaren eraldaketa jasangarria izango du aztergai, hiru ikuspegi kontuan hartuta: ingurumena, gizartea eta ekonomia. Donostia Turismoaren Plan Zuzentzaile berriarekin bat datorren ikuspegia da, herritarren jasangarritasunean eta bizi kalitatean jartzen baitu arreta.
- Donostia izango da, beraz, Konbentzioa hartuko duen hirugarren helmuga turistikoa; Konbentzioaren aurreko edizioak Sevillan eta Bartzelonan izan ziren.
- Konbentzioa Estatuko turismoaren topaleku, koordinazio eta plangintza gunea ez ezik, lankidetzak publiko-pribaturako gunea ere bada; bertan, jardunbide egokiak partekatu eta baterako helburuak finkatuko dira. Edizio honetan, nobedade gisa, esperientzia jasangarri arrakastatsuak aurkezteko gune bat egongo da.

Donostia, 2023ko urriaren 2an

Espainiako Turismo Institutuak (Turespaña) eta Donostiako Udalak, **Donostia Turismoaren bitartez, Turespaña III. Konbentzioa** antolatuko dute, urriaren 23tik 25era, Kursaal Biltzar Jauregian. Horretarako, **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** eta **Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren** laguntza izan dute.

"Turismoaren eraldaketa jasangarria" izenburupean, konbentzioaren ardatz nagusia **turismo jardueraren kudeaketa jasangarria** bilatzea izango da, hiru ikuspegi kontuan hartuta:

ingurumena, gizartea eta ekonomia. Konbentzioa bi ataletan egituratuko da. Alde batetik, **mahai inguru eta txostenen** egitarau zabala, Estatuko eta **nazioarteko turismo sektoreko ordezkariak garrantzitsuenetako** batzuekin; eta, beste alde batetik, ekitaldiaren hirugarren egunean, beste atal bat, non turismo kontseilariak, Turespañako ordezkariak eta Turismoko Estatu Idazkaritzako ordezkariak **aldebiko topaketak** egingo baitituzte helmuga eta enpresa turistikoek bidalitako ordezkariekin.

Edizio honetan, berrikuntza gisa, **jasangarritasunari buruzko gaiekin** lotutako **esperientzia arrakastatsuak aurkezteko** gune bat egongo da, turismo sektoreko hainbat enpresaren eskutik. Gainera, hainbat enpresak Turespañarekin izan dituzten 4 lankidetzajardunbiderik onenak aztertuko dira, sinergien adibide gisa balio dezaten eta, horrela, lankidetzajardun publiko-pribatuaren bidean aurrera egiteko.



Turismo sektoreko enpresa nagusien ordezkariak parte hartzaile izango dituen lehen mahai inguruarekin emango zaio hasiera Konbentzioari, eta gai nagusia **“Etorkizuneko gakoak: Turismoaren erronkak 2024an”** izango da.

“Turismo jasangarritasuna: Non gaude?”, horra bigarren mahai inguruaren izenburua. Bertan, turismoaren sektorea digitalizatorantz eta jasangarritasunerantz bideratzeko egindako eta oraindik egin beharreko bidea ebaluatuko dute.



III. Konbentzioan sartzen diren hitzaldien artean, honako hauek nabarmentzekoak dira, besteak beste: "**Gastronomia turismo garapen jasangarriaren eragile gisa**", chef batzuen eta kudeatzaile gastronomiko batzuen arteko elkarrizketa, eta "**Datorren mundua**" hitzaldia, non aditu batek gidatuko baikaitu eraldaketa digitalera, adimen artifizialera eta horrek turismoan dituen aplikazioetara daraman bidean. Azkenik, nazioarteko helmuga turistiko batetik etorritako gonbidatu garrantzitsu batekin solasean, "**Nola egiten dute beste helmuga turistiko batzuetan?**" jakiteko aukera izango dugu.

Bestalde, **Turismoko Estatu Idazkaritzak**, departamentuan azken urtean egindako proiektuak eta 2024rako aurreikusita daudenak aurkeztuko ditu; eta **Turespañako** arduradunek ondoko gaiak jorratuko dituzte: erakundearen lan ildo nagusiak; ezagutza sortzearen, nazioarteko marketinaren eta merkaturatzearen arloan helmuga turistikoekin eta sektoreko enprekin elkarlanean aritzeko aukerak; merkatu igorleen egoera eta joerak; etab. Gainera, joerei dagokienez, **joerak** aztertzen eta **interpretatzen** adituak diren izen oneko erakunde eta enpresetako ordezkari talde batek parte hartuko du Konbentzioan.

Donostia, hiri anfitrioiaren denaldetik, hiri jasangarri onenetako eta arduratsuenetako bat dela uste dute nazioartean, eta munduko helmuga turistiko gastronomikoetan ospetsuenetako bat da. Konbentzioan zehar Donostiako **kultura- eta gastronomia-eskaintza aparta** jorratuko da, baita turismo jasangarriaren ikuspegitik aurre egin beharreko **erronkak** ere.

Donostian egitekoa den Turespaña III. Konbentzioaren egitaraua osatzeko, Donostia Turismoak ongi-etorriko afari bat eskainiko du Miramar Jauregian, eta astelehenean beste networking afari bat eskainiko da Balentziaga Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Konbentzioa estatuko turismoa, helmugak eta enpresak nazioartekotzeko **topagune, koordinazio eta plangintza gunea** da; horrez gain, lankidetzaren publiko-pribaturako gunea ere bada, **jardunbide**

onak partekatzen eta helburu bateratuak finkatzen lagundu baitezake nazioarteko turismoa 2024. urteari begira sustatzeko.

Turespaña Konbentzioaren hirugarren edizioan presentzialki [bertaratzeko izen ematea](#) joan den uztailan ireki zen, eta urriaren 6ra arte egongo da zabalik Turespañaren webgunean.

Informazio gehiago: <https://convencion2023.spain.info>

Hashtags: [#ConvencionTurespaña](#)
[#sansebastiantourism](#) [#kaixodonostia](#)